

## europako osasun txartela tarjeta sanitaria europea

E-111 formularioa, Estatu Kideko edozein herritar aseguratzen duena aldi baterako egonaldietan jasotzen diren osasun-laguntzetan, Europako Osasun Txartelak ordezkatu du. 2004ko ekainaren 1etik aurrera, TSE bezala ezaguna den txartela erabili behar da.

Txartel horri esker Europar Batasuneko herritar guztiak jaso ahal izango dute Batasuneko edozein herrialdeetan osasun zerbitzua. Doako zerbitzua izango da hori, eta ordaindu behar baldin bada, ondoren egingo da hori.

Eskatzen duten pertsonen emango zaie TSE txartela eta turismoko bidaietan, edota ikasketa eta pentsioarengatik egiten diren lekualdaketa erabili ahal izango da. Txartelean titularraren izena, NAN zenbakia eta atzetik duen Segurtasun Sozialeko Institutuaren zenbakia agertuko dira. Horri esker, gaur egun egiten diren tramiteak azkartuko dira. Izan ere, orain, derrigorrezkoa da gaixoa bere herrialdeko Segurtasun Sozialeko bulegoekin harremanetan jartzea.

Aipatzekoa da txartela banakakoa dela, eta titularrari osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea bermatzen dio. Zerbitzu horiek Europako Batasuneko herrialdeetan, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan eta Suitzian jaso ahal izango dira. Horretarako, zerbitzuak eta herrialdean igaroko den denbora hartuko dira kontuan.

[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)

El formulario E-111, que está destinado a asegurar a cualquier persona de un Estado miembro en las prestaciones sanitarias que recibe durante una estancia temporal, ha sido sustituido por la Tarjeta Sanitaria Europea. La utilización de esta tarjeta, conocida como TSE, entró en vigor el 1 de junio del 2004. Gracias a la misma, todos los ciudadanos de la Unión Europea podrán recibir atención médica en cualquier país miembro. La atención será gratuita, y si se tiene que pagar, después se reembolsará la cantidad correspondiente.

La TSE se entregará a las personas que lo soliciten, y se podrá utilizar con fines de turismo y en casos de traslado por estudios o pensionistas. En la misma aparecen el nombre del usuario, el número de DNI y un código que identifica al Instituto de la Seguridad Social que lo respalda. Gracias a ello, se simplificarán los trámites actuales, ya que hasta ahora era obligatorio que el o la paciente se pusiera en contacto con la Seguridad Social del país de origen para facilitar la asistencia médica.

Cabe destacar que la nueva tarjeta es individual y certifica el derecho de la persona titular a recibir las prestaciones sanitarias que sean necesarias desde un punto de vista médico durante una estancia temporal en cualquiera de los países integrantes de la Unión Europea, del Espacio Económico Europeo y Suiza. Para ello, se tendrán en cuenta las prestaciones y la duración prevista de la estancia.

[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)

**NAHI DUZU ORRIGORRIA ZEURE ETXEAN JASO? EMAZKIGUZU ZEURE DATUAK, ETA HILERO BIDALIKO DIZUGU**

**¿DESEAS RECIBIR EL ORRIGORRI EN TU DOMICILIO? FACILÍTANOS TUS DATOS Y TE LO ENVIAREMOS CADA MES**

Izena/Nombre: \_\_\_\_\_  
Deiturak/Apellidos: \_\_\_\_\_  
Helbidea/Dirección: \_\_\_\_\_  
Posta-kodea/Código postal: \_\_\_\_\_  
Udalerría/Municipio: \_\_\_\_\_  
Posta elektronikoa/Correo electrónico: \_\_\_\_\_

- Marka ezazu hemen, posta elektronikoz bakarrik jaso nahi baduzu  
 Marca aquí si deseas recibirlo exclusivamente por correo electrónico

#### Bidali/Enviar:

Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea  
Geltoki 18  
20160 Lasarte-Oria  
[gazteinfo@lasarte-oria.org](mailto:gazteinfo@lasarte-oria.org)

(Kupoi hau Kulturetxeko atezaindegian ere entrega dezakezu)

También puedes entregar este cupón en la conserjería de la casa de cultura)

## enplegua empleo

Lan bila zabilta?

Goiko galderari baietz erantzun badiozu, hemen duzu lantokia lortzeko aukera on bat. Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoan inon aurki dezakezun enplegu-eskaintzarik handiena dugu. Edozer bilatzen duzula ere, zure prestakuntza eta trebakuntza edozein delarik ere, guk lagun diezazukegu lantokia aurkitzen. Enplegu pribatua zein enplegu publikoa, prestakuntza eta esperientzia handiko lanpostuak nahiz prestakuntza beharrik gabeko lanak. Seguru lagun diezazukegula. Horretarako, nahikoa duzu gure Bulegora etortzea eta kontsultatzea eskuera jarriko dizkizugun dosierak, zabalak eta astero berritzen ditugunak. Eta, noski, zerbitzu hori guztiz dohainik da. Ez, gero, aukera galdu!

¿Buscas trabajo?

Si has respondido sí a la pregunta de arriba, aquí tienes una buena oportunidad para conseguirlo. En la Oficina Municipal de Información Juvenil tenemos la mayor oferta de empleo que puedes encontrar. Busques lo que busques, sea cual sea tu formación y preparación, nosotros podemos ayudarte a encontrar empleo. Desde empleo privado a empleo público, desde puestos de alta cualificación y experiencia hasta trabajos sin cualificar. Seguro que podemos ayudarte. Lo único que debes hacer, es pasarte por nuestra Oficina y consulta los amplios dossieres que ponemos a tu disposición y que renovamos semanalmente. Y, por supuesto, este es un servicio absolutamente gratuito. No te lo pierdas.

## sarea red

Gazteentzako Dokumentazioaren  
eta Informazioaren Euskadiko  
Sarea

Lasarte-Oriako Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoa, Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen barruan dagoen doako zerbitzu publikoa da, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko sarea osatzen duten berrogeita hamar zerbitzu ingururen zati dena. Gure helburua, gazteentzako interesgarri izan daitekeen eta lanarekin, heziketarekin, aisialdiarekin, astialdiarekin eta abarrekin zerikusia duen informazio oro gazteengana hurbilaztea da. Informazio hori, Kulturetxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan jendea zuzenean atendituz, telefonoz eta posta elektronikoz bidez zabaltzen da. Horrez gain, norberak kontsultak egiteko zerbitzua ere badu, gazteei gehien interesatzen zaizkien gaiak lantzeko aukera ematen duena. Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen web gunea honako hau da: [www.gazteinformazioa.net](http://www.gazteinformazioa.net)

Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi

La Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria es un servicio público y gratuito que pertenece a la Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi y que, en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, forma parte de los, aproximadamente, cincuenta servicios que completan la red en la Comunidad Autónoma Vasca. Nuestra finalidad es acercar a las personas jóvenes toda aquella información que pueda ser de su interés y que tenga que ver con el mundo del trabajo, la educación, el ocio, tiempo libre... Dicha información se difunde mediante la atención directa al público en la oficina situada en la segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona, y a través de vía telefónica o por correo electrónico. Además, dispone de un servicio de autoconsulta en el que las personas jóvenes pueden trabajar directamente los temas que más les interesan. El sitio web de la Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi es [www.gazteinformazioa.net](http://www.gazteinformazioa.net)




## ordutegiak horarios

gazteen informaziorako udal bulegoa  
oficina municipal de información juvenil

Astelehenetik ostiralera Lunes a viernes 11:00-13:00/17:00-20:00

Casa de Cultura MANUEL LEKUONA Kultur Etxea  
Geltoki 18 - 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 37 61 81/91 - Fax: 943 37 61 92  
[gazteinfo@lasarte-oria.org](mailto:gazteinfo@lasarte-oria.org)  
[www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org)

## gazte informazioa ORRIGORRI no. 89 zk.



maiatza / junio

CASA DE CULTURA MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA  
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIAKO UDALA

lasarte-oria  
[www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org)

# Ikastaroak Cursos

# Tarjeta inter rail inter rail txartela

# Aterpetxeak albergues

## DORNATZAILE PARKET-JARTZAILE IKASTAROA CURSO DE ENTARIMADOR-PARQUETISTA

<b>Lasarte-Oriako Udala</b> <b>Lasarte-Oriako INEM-SPEE</b> Prestakuntzaren eta Enpleguaren Arloa Lasarte-Oriako Udala Kale Nagusia, 56 Tfnoa: 943 37 61 83 / 943 37 60 55	<b>Ayuntamiento de Lasarte-Oria</b> <b>INEM-SPEE de Lasarte-Oria</b> Área de Formación y Empleo Ayuntamiento de Lasarte-Oria Kale Nagusia, 56 Tfno.: 943 37 61 83 / 943 37 60 55
<b>Baldintzak</b> -Enplegugabea. -Eraikuntzaren arloari buruzko interesa.	<b>Requisitos</b> -Desempleados. -Interés por el campo de la construcción.
<b>Edukia</b> -Lana antolatzea. -Parketa ipintzea. -Dornadurak ipintzea. -Zurezko zoruak konpontzea eta bukatzea. -Ingurumenaz sentsibiltzatzeke modula.	<b>Contenido</b> -Organización del trabajo. -Colocación de parquet. -Colocación de tarimas. -Reparaciones y terminaciones de suelos de madera. -Módulo de sensibilización ambiental.
<b>Iraupena</b> 2006ko uztailearen 3tik urriaren 20ra.	<b>Duración</b> Del 3 de julio al 20 de octubre de 2006.
<b>Ordutegia</b> 14:00etatik 20:00etara.	<b>Horario</b> De 14:00 a 20:00 horas.

## ONARRIZKO HARGINTZA IKASTAROA CURSO DE ALBAÑILERÍA BÁSICA

<b>Lasarte-Oriako Udala</b> <b>Lasarte-Oriako INEM-SPEE</b> Prestakuntzaren eta Enpleguaren Arloa Lasarte-Oriako Udala Kale Nagusia, 56 Tfnoa: 943 37 61 83 / 943 37 60 55	<b>Ayuntamiento de Lasarte-Oria</b> <b>INEM-SPEE de Lasarte-Oria</b> Área de Formación y Empleo Ayuntamiento de Lasarte-Oria Kale Nagusia, 56 Tfno.: 943 37 61 83 / 943 37 60 55
<b>Baldintzak</b> -Enplegugabea. -Eraikuntzaren arloari buruzko interesa.	<b>Requisitos</b> -Desempleados. -Interés por el campo de la construcción.
<b>Edukia</b> -Hargin-lan arruntaren eraikuntza. -Trenkaden eraikuntza. -Hargin-lanak bistako adreiluarekin eraikitzea. -Ingurumenaz sentsibiltzatzeke modula.	<b>Contenido</b> -Construcción de obra de fábrica ordinaria. -Construcción de tabiquería. -Construcción de fábricas con ladrillo visto. -Módulo de sensibilización ambiental.
<b>Iraupena</b> 2006ko uztailearen 3tik azaroaren 7ra.	<b>Duración</b> Del 3 de julio al 7 de noviembre de 2006.
<b>Ordutegia</b> 8:00etatik 14:30etara.	<b>Horario</b> De 8:00 a 14:30 horas.

Europako herrialdeetan zehar bidaiatzeko txartela da, adin-mugarik ez duena.

Inter Rail txartelak 2. mailako ia tren guztietan bidaiatzeko eskubidea ematen du. 16 edo 22 egunetako edo hilabete bateko bilaldiak egin daitezke. Hala ere, herrialde guztietan badago berezirik (Intercity, Eurocity, etab.) eta haueetan gehigarri bat ordaindu beharko duzu. Txartelaren titularrek %50eko deskontua izateko eskubidea dute irteerako geltokitik mugaraino, baina ez izango dira Espainian zehar dohainik bidaiatu ahal izango tren F zonan hartzen badute. Deskontua aplikatzen da, halaber, Inter Rail txartelak balio duen herritik gertuen dagoen punturaino.

Inter Rail eskaintza egiten duten herrialdeak zortzi gune geografikotan sailkatuta daude:

- A Gunea: Irlanda eta Britainia Handia.
- B Gunea: Suedia, Norvegia, Finlandia.
- C Gunea: Danimarka, Alemania, Suitza, Austria.
- D Gunea: Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Hungaria, Kroazia
- E Gunea: Frantzia, Belgika, Holanda, Luxenburgua.
- F Gunea: Espainia, Portugal, Maroko.
- G Gunea: Italia, Grezia, Turkia, Eslovenia.
- H Gunea: Mazedonia, Bulgaria, Errumania, Serbiar Batasuna eta Montenegro.

### ONURADUNAK

- Europa, Maroko, Arjelia edo Tunisian bizi direnak.
- Nortasuna eta adina NAN, pasaporte edo goian aipatu herrialderen batean 6 hilabetez bizi izan denaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuta beharko da.
- 60 egun lehenago eskura daiteke Inter Rail txartela, Renfeko bulegoetan.

### ERABILERA ETA KONTROLA

Inter Rail txartela pertsonala eta besterezina da. Txartelak balioa izan dezan, nortasun agiri ofizial batekin batera aurkeztu behar da.

### PREZIOAK (2005-06)

- 26 urtetik beherakoak:
  - 1. gunea (16 egun): 195 euro
  - 2. gunea (22 egun): 275 euro
  - Orokorra (30 egun): 385 euro
- 26 urtetik gorakoak:
  - 1. gunea (16 egun): 286 euro
  - 2. gunea (22 egun): 396 euro
  - Orokorra (30 egun): 546 euro
- 12 urtetik beherakoak:
  - 1. gunea (16 egun): 143 euro
  - 2. gunea (22 egun): 198 euro
  - Orokorra (30 egun): 273 euro

### DEUSEZTATZEA

- Txartela balio-denbora hasi baino lehenago entregatzen bada, zenbateko osoa itzuliko da.
- Balio-denboraren lehen egunaren ostean entregatzen bada, ez da deus itzuliko.

**WEB ORRIALDEA**  
www.renfe.es  
www.inter-rail.org

Es un pase de libre circulación sin límite de edad, por ocho zonas diferentes. El Inter Rail da derecho a utilizar casi todos los trenes en segunda. Permite viajar por una o varias zonas durante 16 o 22 días o un mes por la zona elegida, pero en todos los países existen trenes especiales, tales como Intercity, Eurocity, etc., en los que has de pagar un suplemento. En España, los residentes, tienen descuentos del 50% en los recorridos desde la ciudad de origen en España hasta la frontera, pero no podrán viajar gratuitamente por España cuando adquieran la zona F; el descuento también se aplica hasta el punto más cercano del país donde tenga validez el Inter Rail.

Los países participantes en la oferta Inter Rail están agrupados en 8 zonas geográficas.

- Zona A: Irlanda, Gran Bretaña.
- Zona B: Suecia, Noruega, Finlandia.
- Zona C: Dinamarca, Alemania, Suiza, Austria.
- Zona D: Polonia, República Checa, Eslovaquia, Hungría, Croacia
- Zona E: Francia, Bélgica, Holanda, Luxemburgo.
- Zona F: España, Portugal, Marruecos.
- Zona G: Italia, Grecia, Turquía, Eslovenia.
- Zona H: Macedonia, Bulgaria, Rumanía, Unión de Serbia y Montenegro.

### BENEFICIARIOS

- Personas domiciliadas en Europa, Marruecos, Argelia o Túnez.
- Es necesario acreditar la identidad y fecha de nacimiento mediante presentación del D.N.I., pasaporte o certificado de residir más de 6 meses en uno de los países anteriormente citados.
- La tarjeta Inter Rail puede adquirirse con 60 días de antelación a la fecha de utilización. Se solicita en las oficinas de Renfe.

### UTILIZACION Y CONTROL

La tarjeta Inter Rail es personal e intransferible. Sólo es válida si se presenta conjuntamente con un documento oficial de identidad.

### PRECIOS (2005-06)

- Menores de 26 años:
  - 1 zona (16 días) 195 euros
  - 2 zonas (22 días) 275 euros
  - Global (30 días) 385 euros
- Mayores de 26 años:
  - 1 zona (16 días) 286 euros
  - 2 zonas (22 días) 396 euros
  - Global (30 días) 546 euros
- Menores de 12 años:
  - 1 zona (16 días) 143 euros
  - 2 zonas (22 días) 198 euros
  - Global (30 días) 273 euros

### ANULACIONES

- Si se presenta la tarjeta antes del comienzo de la validez se reembolsa el precio entero.
- Si se presenta después del primer día de validez no procederá su reembolso.

**PÁGINA WEB**  
www.renfe.es  
www.inter-rail.org

Aterpetxeak, Estatu espainiarraren kasuan, Red de Albergues Juveniles (REAJ) elkartera eta, nazioarte mailan, IYHF elkartera loturik dauden instalazioak dira. Aterpetxe horiek erabiltzeko ezinbestekoa da aterpekeide-txartelaren titularraren izatea.

Ostatu hartzeko leku horiek ekonomikoak izaten dira kasu gehienetan eta banaka edo taldeka erabil daitezke. Instalazioek ostatu hartzeko hainbat aukera eskaintzen dituzte eta horrela, bi oheko, lau oheko edota taldeak jasotzeko prestatuak dauden gelak dituzte. Azken horietan pertsonak sexuka banatzen dira. Hau da, gizonetako gela batean egiten dute lo eta emakumezkoek beste batean. Aterpetxeek eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, aipatzekoa da kasu askotan mantenua eskaintzen dutela. Hori erabiltzeko, ordea, erabiltzaileak bere laguntza eman behar du. Hau da, aterpetxean bazkaldu behar baldin baduzu, mahaia jartzen, otordua zerbitzatzeko eta beste hainbat lanetan lagundu behar duzu. Era berean, ezinbestekoa da izarak edota lo egiteko zakua eramatea. Aterpetxeek beste hainbat arau ere badituzte. Besteak beste, sarrera eta irteera orduak dituzte. Modu horretan, ezin daitezke instalazioetan araututako orduetatik kanpo sartu. Azkenik, aipatu beharra dago, aterpetxe batean ezin daitezkeela hiru gau jarraian igaro. Arau horren bidez, beste aterpekeide batzuentzat lekua bermatzen da.

**BESTE ATERPETXE BATZUK**  
REAJ elkartereko eta IYHF elkartereko aterpetxeek gain, beste hainbat aterpetxe ere badaude. Instalazio eta zerbitzu horiek erabiltzeko ez da beharrezkoa aterpekeide-txartela izatea.

### ATERPEKIDE-TXARTELA

Aterpekeide-txartelak adin guztietako jendeari ematen du aukera ostatu hartzeko, era desberdin batean eta merke. Bost kontinenteetako 5.000tik gora aterpetxe erabil daitezke. Gazte-aterpetxe gehienak toki aproposetan daude kanpo-jarduerak, jarduera ekologikoak, elurretakoak, mendikoak eta abar egiteko. Beste batzuek aukera ematen dute inguru bereziki aberatsa ezagutzeko, ikuspegi historiko-artistiko eta kulturaletik. Sareak Munduan duen edozein gazte-aterpetxetan ostatu hartzeko, aterpekeide-txartela behar da, eta hori lortzeko, nahikoa da NANA edo pasaportea aurkeztea eta txartel-motaren arabera egin beharreko ordainketa egitea. Iraupena urtebetekoa da, beraz, txartela 2005/01/01ean eman bada, 2006/01/02an iraungiko da.

**ITURRIA**  
www.gazteukera.net

**INFORMAZIOA**  
www.reaj.com  
www.iyhf.org

Los albergues son las instalaciones que pertenecen a la Red de Albergues Juveniles (REAJ) en el caso del Estado español, y los albergues de la IYHF en el caso de la red internacional. Para utilizar estos albergues es obligatorio pertenecer a la red mediante la adquisición del carné de alberguista.

Estos alojamientos son normalmente económicos, y se puede acceder a los mismos en forma individual o en grupo. Las instalaciones tienen diferentes opciones de alojamiento y ofertan dormitorios de distintos tamaños. De esta manera, se puede disponer de habitaciones dobles, triples, o múltiples. En estos últimos casos se suele separar a las personas por sexo. Es decir, los hombres por un lado y las mujeres por otro. Entre los servicios que ofrecen los albergues, existe en algunos casos el de manutención, pero para poder utilizarlo, es necesaria la colaboración de la persona usuaria. Por ejemplo, si vas a comer en el albergue, debes ayudar a poner la mesa, servir la comida... Así mismo, a veces es obligatorio llevar saco de dormir o sábanas. Y es que, el albergue establece una serie de normas. Entre otras, tiene unos horarios de apertura y cierre, de modo que no se puede acceder al recinto fuera del horario establecido. Por último, cabe mencionar que en un mismo albergue no se puede pernoctar más de tres noches seguidas. De esta manera se garantiza que otras personas también puedan utilizar las instalaciones.

### OTROS ALBERGUES

Además de los albergues de la REAJ y de la IYHF, también existen otros albergues en los cuales puedes utilizar las instalaciones y los servicios de estos albergues sin tener el carné de alberguista.

### CARNÉ DE ALBERGUISTA

El Carné de Alberguista permite a personas de todas las edades alojarse de una manera diferente y económicamente asequible. Se pueden utilizar más de 5.000 albergues en los cinco continentes y la mayor parte están ubicados en lugares que permiten la práctica de actividades al aire libre, ecológicas, nieve, montañismo etc. Otros permiten descubrir un entorno particularmente rico, desde el punto de vista histórico-artístico y cultural. Para alojarse en un Albergue Juvenil de toda la red mundial, es necesario disponer de un carné de alberguista y para conseguirlo sólo se precisa la presentación del DNI o pasaporte, y el abono de su importe, según la modalidad de carné. El periodo de validez es de un año natural, es decir: si la fecha de expedición es del 01/01/2005 la fecha en que expira será el 02/01/2006.

**FUENTE**  
www.gazteukera.euskadi.net

**INFORMACIÓN**  
www.reaj.com  
www.iyhf.org